



GALINDOKO HUA-KO 2. LABEKO LURRUNA SORTZEKO SISTEMA BIRGAITZEKO OBRA

3. dokumentua Baldintza tekniko berezien plegua

1. HELBURUA

Baldintzen plegu honen jomuga da GALINDOKO HUA-KO 2. LABEKO LURRUNA SORTZEKO SISTEMA BIRGAITZEKO OBRA delakoaren kontrataziorako baldintzak zehaztea, baita lizitatzailleek euren eskaintza teknikoetan aurkeztu beharreko dokumentazioa ere

2. DESKRIBAPEN OROKORRA

Galindo HUAko 2. labeko lurrana sortzeko sistemak ur osmotizatuaren lurrunketa sortzen du, turbinan elektrizitatea sortzeko behar besteko tenperatura eta presioan birberotutako lurrana sortzeko. 42 Bar eta 420 °C.

Kontuan hartuta sistema osoak dituen estres termikoko baldintzak eta zerbitzuan bi hamarkada baino gehiago eman ondoren jasaten duen narriadura-egoera, beharrezkoa da osorik birgaitzea. Horren bidez, labearen segurtasuna eta eskuragarritasuna bermatuko da, eta baita HUAk sortutako lohiak tratatzeko duen gaitasuna ere.

Horretarako, beharrezkoa da GALINDO HUA-KO 2. LABEKO LURRUNA SORTZEKO SISTEMA BIRGAITZEKO OBRA kontratatzea.

3. OBRAREN IRISMENA

Kontratatu nahi den obraren irismena Kontrataziorako Proiektua dokumentuan zehazten da.

3.1 PLANOEN AKATSAK

Baldintza tekniko berezien plegu honekin batera doa lizitazio-eskaintza egiteko erabili beharreko plano-multzoa.

3.1.1 KONTRAESANAK, OMISIOAK EDO AKATSAK DOKUMENTAZIOAN

Pleguetan aipatutakoa eta planoetan aipatu ez dena edo alderantziz bi dokumentuetan jasota balego bezala egikaritu beharko da.

Proiektuaren planoen eta baldintza-pleguen artean kontraesanik badago, azken horietan agindutakoa nagusituko da.

Planoetan eta baldintza-pleguetan egindako omisioek edo xehetasunen deskribapen okerrekin, baldin eta planoetan eta baldintza-pleguetan jasotakoa gauzatzeko ezinbestekoak badira argi eta garbi, edo usadio-ohituragatik egin beharrekoak badira, ez dute inolaz ere salbuesten kontratista aipatu gabeko edo oker deskribatutako obra-xehetasunak gauzatzeko betebeharretik; aitzitik, xehetasun guztiz eta behar bezala zehaztu balira bezala egin beharko dira.

3.1.2 XEHETASUN-PLANO OSAGARRIAK ETA ERAIKUNTZAKOAK

Kontratataren ardura izango da lanak behar bezala egiteko behar diren xehetasun-plano osagarri guztiak egitea. Plano horiek gutxienez 15 (hamabost) laneguneko aurrerapenarekin aurkeztuko zaizkio Kontratuaren Zuzendaritzari, onetsi ditzan edo iruzkinak egin ditzan. Inguruabar horrek ez du inola ere justifikatuko baldintza teknikoaren eta administrazio-baldintzen pleguetan ezarritakoaren arabera bete beharreko mugarri partzial guztiak ez betetzea.



3.2 OBRA-PLANA - PROGRAMAZIOA

Lanak hasi aurretik, kontratistak proiektu honetan jasotako lan guztiak (baita lanak hasi aurreko jarduerak ere) egiteko proposatutako sekuentziaren eta garapenaren plangintza xehatua emango dio Obra Zuzendaritzari. Plangintza horrek lan partzial guztiak jasoko ditu, haien hasiera eta amaiera zehaztuta.

Nolanahi ere, lanen plangintzak bi txandako lana jaso beharko du instalazioa geldirik dagoela egiten diren lan guztietarako.

Aurkeztutako Obra Planak, gutxienez, Kontrataziorako Proiektuan aurkeztutako mugarriak bete beharko ditu.

2. labea Galindoko HUAren eta BBUPren beste instalazio batzuen funtzionamendurako beharrezkoa den ekipoa denez, plegu honetan lizitatutako lanek oztopatu egin dezakete horien lana. Horregatik, instalazioa geldirik dagoela egin beharreko lanen plangintza denboran alda liteke, Galindoko HUAren eta BBUPko beste instalazio batzuen lan-beharren arabera.

Horrela, instalazioa geldirik dagoela egin beharreko lanen iraupena ezin da adierazitako denbora baino luzeagoa izan. Arrazoi beragatik, lan horiek txanda bikoitzean egin beharko dira.

Adjudikaziodunak onartzen ditu, ordainik gabe, bi aste lehenago jakinarazten zaion muntaketa-data.

3.3 LEGEZTATZEA

Obraren izaera dela-eta, lan guztiak legeztatu behar dira. Horrela, adjudikaziodunak egin beharko ditu instalazioak legeztatzeke behar diren lan eta izapide tekniko-administratibo guztiak (eskaerak, proiektuak idatzi eta ikus-onestea, ikuskapen ofizialak, etab.).

Kontratistaren kontura izango dira baimendutako kontrol-erakundeak egin beharreko saiakuntza, egiaztapen, proba, ikuskapen eta abarrek eragindako gastu guztiak, haiek egiteko behar diren elementuak barne, eta adjudikaziodunak, lanak amaitzean, sortutako dokumentazio guztia kontratu-arduradunari emango dio.

3.4 KONTRATISTAK ENTREGATU BEHARREKO DOKUMENTUAK ETA TXOSTENAK

Obra efizientziaz egiten dela ziurtatzeko, informazioaren berri izan behar da, eta informazioa eguneratua izan; gainera, hura dokumentatu, erregistratu eta artxibatu behar da.

3.4.1 INFORMAZIOA

BBUPk kontratistaren esku jarriko du bere esku duen dokumentazio guztia, kontratua gauzatzen laguntzeko.

Kontratistak konpromisoa hartzen du BBUPk kontratua gauzatzeko emandako informazioaren konfidentziasuna gordetzeko, eta, bereziki, teknologiaren, iturburu-programen, prozeduren, software industrialaren, planoen eta eskemen, espezifikazioen, jarraibideen eta abarren erabilerari buruzkoa. Horiek guztiak erabilera-baldintza ezin hobeetan gordeko dira, eta aldaketarik gabe itzuliko zaizkio BBUPri.

3.4.1.1 INFORMAZIOA EGUNERATZEA

Lanak egin ondoren, adjudikaziodunak eguneratutako edo aldatutako dokumentazio guztia eguneratu beharko du, bai paperean, bai formatu elektronikoan. Baldintza horrek planoei, ataza-koadernoiei, programei, eskema elektrikoei eta lanetan erabilitako gainerako dokumentazioari eragiten die, eta horiek *as built* behin betiko edizioan eguneratuko dira.



3.4.2 DOKUMENTAZIO PARTIKULARRA

Kontratistak, eraikuntza-proiektuan eskatutako guztiez gain, honako dokumentazio hau aurkeztu beharko du, gutxienez:

- Fabrikazio-proiektuak.
- Ikuskapen-puntuen plana.
- Kurbak distentsionatzeko ziurtagiria.
- Bikoizketan % 10etik beherako gehieneko lodiera galdu izanaren ziurtagiria.
- Bikoizketako obalitate maximoaren ziurtagiria, % 10etik beherakoa.
- Hodien % 100eko bola-pasearen ziurtagiria.
- Egindako lanen dosierra.
- Tratamendu termikoen ziurtagiriak eta kurbak.
- Kalitate-ziurtagiriak (erabilitako materialak, saiakuntzak, CE marka, etab.)
- Soldadura-prozedurak.
- Soldatzailen homologazioa.
- Hornitutako ekipoak egiaztatzeke ziurtagiriak.
- Proba funtzionalen protokoloa. END eta proba hidraulikoak.
- Mantentze-lanen eskuliburua.
- Diseinu-planoak, lantegiko planoak (eraikuntzakoak), muntaia-planoak eta *as built* planoak.
- Instalazioak legeztatzeke behar den legeko dokumentazioa.
- Sortutako hondakinen kudeaketari buruzko dokumentazioa.

Dokumentazioa formatu digitalean egongo da; planoak Autocad (dwg) formatuan egongo dira, eta dokumentazio idatzia, Office-Word, Access formatuan, irakurtzeko, inprimatzeko edo idazteko inolako murrizketarik gabe. Gainera, bi (2) kopia inprimatu emango dira.

Kontratua ez da amaituko eskatutako dokumentu guztiak entregatu eta kontratuaren arduradunak onesten dituen arte.

3.4.3 KONTRATISTAK ENTREGATU BEHARREKO TXOSTENAK

Funtsezkoa da BBUPk bere produkzio-jarduerari eusteko egiten den ahalegina ezagutzea eta kuantifikatzea. Horretarako, eta mantentze-lanak etengabe hobetzeko oinarri gisa, beharrezkoa da informazioa izatea, eta, ondorioz, kontratistak txosten hauek aurkeztu beharko ditu (eraikuntza-proiektuan eskatutako guztiez gain):

3.4.3.1 HILEKO TXOSTENA

Baldintza tekniko berezien plegu honen xede diren lanak, aurretik egindako antzeko jarduketan bidez egiaztatuta egon arren, ez dira eskusiboak, eta hobetu egin daitezke.

Etorkizunerako lanon definizioa egokitzeke, kontratistak lanok egin bitartean gertatzen diren gorabehera, arazo eta abarren analisi sakona egingo du.

Hilero, kontratistak HILEKO TXOSTEN bat egingo du, honako hauek jasoko dituen:

- Jazotako gorabehera garrantzitsuen erregistro xehatua, haien alderdi garrantzitsuen azterketa eta haiek ebazteke proposamena barne.
- Egindako lanen ZERRENDA BALORATUA (neurketen eta kontratuaren aurrekontuaren arabera), ziurtagiria emateke oinarria izango dena.
- Kontratuaren aurrekontuaren jarraipena

4. GIZA BALIABIDEAK ETA BALIABIDE MATERIALAK

Kontratuaren kudeaketa behar bezala egiteke eta BBUPri lanak egiaztatzeke eta emaitzak kontrolatzeko, behar dituen giza baliabideak eta baliabide materialak dituen antolamendu-egitura izango du Kontratistak.

Gutxienez, kontratistak ondoren zehazten diren giza baliabideak eta baliabide materialak izan beharko ditu bere kontura eta haien kostua bere gain hartuta kontratuaren zenbateke ekonomiko osoaren barruan.



4.1 GIZA BALIABIDEAK

- Kontratuaren arduradun bat, kontratuaren gaiaren inguruko espezialitate batean goi-mailako titulazio teknikoa eta bost urtetik gorako esperientzia duena; kontratistaren plantillan integratuta egongo da eta kontratistaren ordezkari gisa jardungo du, eta kontratuaren Zuzendaritzaren aurrean lanen solaskide eta arduradun nagusia izango da.
- Giza baliabide espezializatu nahikoak, kopuru eta kualifikazio nahikoarekin, kontratuaren baldintzak betetzen direla bermatzeko.
- Prebentzio Jardueren Koordinazioko arduradun bat, LAPeko (Laneko Arriskuen Prebentzioa) goi-mailako prestakuntzarekin; kontratuari arduraldia emanda, eta kontratuaren xede diren instalazioetan egongo da. Hori horrela, denbora errealean arduratuko da Prebentzio Jardueren Koordinazioaz, eskura dituen bitartekoak koordinatzeaz eta langileei eta azpikontratei LAPari buruzko aholkularitza teknikoa eta legala emateaz.

BBUPren instalazioetan lan egiten duten langile guztiek izango dituzte lan horiek egiteko behar diren gaitasun profesionala eta trebakuntza-maila. Kontratistaren ardura izango da ekipoak kontratatutako zerbitzuen helburuetara egokitzea.

Langile guztiek portaera egokia izan behar dute, behar bezala unformatuta, garbi eta identifikatuta joan behar dute, eta identifikazio-txartel pertsonala eraman behar dute, ikusteko moduan.

Kontratuaren Zuzendaritzaren iritziz, BBUPk eskubidea du langileak ordezteko eskatzeko, baldin eta ez badatoz bat aipatutako eskakizunekin edo ez badute behar adinako gaitasunik eta trebetasunik erakusten agindutako lanerako.

4.2 BALIABIDE MATERIALAK

- Kontratu honen xede diren lanak behar bezala egiteko behar diren erremintak, makinak eta edozein motatako ibilgailuak, babes indibidual eta kolektiboko ekipamenduak eta abar.
- Tailer, bulego eta aldagela propioak edo alokatuak, kontratua betetzeko behar diren giza baliabideen eta baliabide materialen kopuruarekin bat datozenak (BBUPk ez du lokalik emango langileen bulego, aldagela, komun eta abarretarako, ezta erremintak, makinak eta ibilgailuak gordetzeko ere, eta kontratistaren kontura izango dira arrazoi horiengatik sortzen diren gastu guztiak).
- Kontratistak dagokion energia elektrikoaren sorgailua izango du, muntaketaren eta martxan jartzearen aurreikuspenen eta beharren arabera beharrezkoa den potentzia. Ezin izango da energia elektrikorik hartu BBUPren instalazioetatik.

Lanen iraupenaren arabera, oro har eta instalazioan toki libre badago, kontratistak bere kontura jarriko ditu etxolak, komunak, biltegiak eta kontratatutako lanak normal garatzeko behar diren material-bilketak, kontratuaren zuzendariaren nahitaezko baimena lortu ostean. Kontratistaren ardura izango da eremu horiek txukun eta garbi edukitzea. Lanaldia amaitutakoan, egunero txukundu beharko dira eremuok. BBUPk beretzat gordetzen du eskubidea zabarkeria ikusiz gero eremuok garbitzeko, hirugarren bat kontratatuz; horrelakoetan, kontratistak ordaindu beharko du zerbitzuaren kostua.

Kontratistaren kontura izango dira lursaila egokitzeko, instalazioak instalatzeko, kentzeko edo lekuz aldatzeko, obra osagarriak eraisteko eta okupatutako azalerak egokitzeko eta garbitzeko gastuak, jatorrizko itxura berreskura dezaten. Kontratuaren Zuzendaritzaren onespena lortu beharko du Kontratua amaitutzat jo ahal izateko.

Kontratuaren Zuzendaritzak baimendu behar du kontratistaren ibilgailuak BBUPren instalazioetan aparkatzea, betiere horretarako lekua badago, eta kontratistaren langileak instalazioan dauden bitartean bakarrik dago baimenduta.

BBUPk ez du erantzukizunik izango kontratistaren laguntza-baliabideek jasan ditzaketen lapurreten edo kalteen aurrean. Hortaz, egokitze jotzen dituen neurriak hartu beharko ditu ekipoak lanak amaitu arte seguru egon daitezen.

4.2.1 HORNIDURA

Kontratua behar bezala gauzatzeko behar diren hornidura, erregai, komunikazio eta abar guztiak kontratistaren



kontura izango dira.

Oro har, eta kontratuaren Zuzendaritzak berariaz baimendu ezean, kontratistak ezingo ditu erabili BBUPren instalazioetan eskuragarri dauden energia-iturriak (elektrikoa barne). Hortaz, bere kabuz sortu beharko du kontratatutako lanak egiteko behar duen energia elektrikoa, eta legezko dokumentazio guztia eduki.

Hala adierazitako tokian ura hartzeko aukera emango zaio, baita saneamendu-sarera konektatzeko gune bat eskainiko ere (beharrezkoa bada), baina kontratistaren erantzukizuna izango da uraren banaketa- eta saneamendu-sarea lantokietaraino eramatea. Biak egin beharko dira indarrean dauden erregelamenduen, segurtasun-arau egokien eta kontratuaren Zuzendaritzaren oniritziaren arabera.

4.2.2 BITARTEKO OSAGARRIAK.

Kontratistak kontratuaren irismenean sartutako lan guztiak egiteko behar diren baliabide osagarriak, aldamiok, garabiak, plataformak, multzo elektrogenoak eta abar hornitzeko betebeharra du.

Bitarteko osagarrien, aldamioren, garabien, plataformen, multzo elektrogenoen eta abarren prezioak modu proportzionalen sartuta daude prezio unitarioetan, eta, beraz, ez dira bereizita ordainduko.

5. AZPIKONTRATAZIOA

Kontratistak administrazio-baldintza berezien pleguan ezarritakoa bete beharko du.

6. KONTRATUAREN BALDINTZA OROKORRAK

Kontratistaren erantzukizunpean emango da kontratua, plegu honetan adierazitako baldintzetan.

Kontratuaren xede diren jarduera guztietan aplikatu beharreko legeria, araudi eta lege-araudi guztiak bete behar ditu kontratistak, baita BBUPk ezar ditzakeen prozedurak ere.

Jarduteko moduari buruzko zalantzarik izanez gero, kontratuaren Zuzendaritzara jo behar du kontratistak, informazioa eskuratzeko.

6.1 KONTRATUAREN HASIERA ETA AMAIERA

Erabat debekatuta dago BBUPren instalazioetan inolako jarduerarik hastea kontratuaren Zuzendaritzaren berariazko baimenik gabe.

Kontratuaren indarraldia amaitutakoan bukatutzat emango da. Instalazio osoaren diseinu- eta funtzionamendu-parametroak erregistratu eta baldintza tekniko berezien plegu honen xede den aktibo bakoitzaren funtzionamendua egiaztatu arren, kontratua ez da amaitutzat joko baldintza tekniko berezien plegu honetan eskatutako dokumentazio guztia entregatzen ez den bitartean.

6.2 PROZEDURAK

Kontratistak, bere kabuz eta bere baliabideekin, BBUPren bulegoetara eramango ditu kontratuaren xede diren lan guztiak egiteko behar diren langileak eta bitarteko materialak.



Kontratistak lan guztien plangintza egingo du, eta lan horiek Aktiboak Kudeatzeko Zuzendariordetzako Plangintza Arloetara bidali beharko ditu, haiek arduratuko baitira dagozkion lan-aginduak emateaz (lan agindua, era guztietako jarduketak egiteko ezinbesteko dokumentua). Lan-agindu bakoitzean jasotako lanak bukatu ondoren, enpresa kontratistak EGINDAKO LANEN TXOSTENA emango dio kontratuaren arduradunari, eta hurrengo hauek jasoko ditu, gutxienez:

1. Egindako lanen laburpena, honako hauek erregistratuta:
 - Erabilitako giza baliabideen eta baliabide materialen kantitate eta prezio unitarioen xehetasuna, bai eta egindako lan bakoitzean duten arduraldia ere.
2. Eguneroko lan-parteen zerrenda, egindako zereginak adierazita.
3. Horiek egitean hautemandako gorabeherak eta anomaliak.
4. Era berean, baldintza tekniko berezien plegu honen xede diren lanak egiteko edo instalazioen egoera hobetzeko egokitzat jotzen diren iradokizun guztiak adieraziko dira.

Kontratistak onartu egingo ditu Kontratuaren Zuzendaritzak gorabeherak, akatsak, matxurak, urgentzia- edo larrialdi-egoerak eta abar jakinarazteko ezarritako prozedurak.

6.3 LANEN KOORDINAZIOA

Kontratistari dagokio baldintza tekniko berezien plegu honen xede diren lanak koordinatzea, baita zerbitzu osagarrien enpresa hornitzaileen lanekin koordinatzea ere.

BBUPk sustatu eta erraztu egingo du BBUPk kontratatutako enpresek beren zerbitzuak modu sinergikoan eta koordinatuan eman ahal izatea.

Kontratistaren lanak prozesu-lanarekin edo aldi berean egiten diren "beste" lan batzuekin interferitzen duenean, kontratuaren Zuzendaritzak baimentzen duenean bakarrik hasiko da gauzatzen.

6.4 KONTRATUAREN JARRAIPENA ETA KONTROLA

Kontratuaren arduradun batek (BBUPren plantillako ingeniariak) zuzendu behar du kontratua. Teknikari arduradun baten (BBUPren plantillakoa) edo kanpoko laguntza teknikoaren laguntza izan dezake arduradun horrek, eta kontratua betetzeko Zuzendaritza-, jarraipen- eta kontrol-lanak egin behar ditu.

Kontratuaren Zuzendaritzak beharrezkotzat jotzen dituen kontrol-neurriak ezarri ahal izango ditu kontratuaren baldintzak behar bezala betetzen direla ziurtatzeko, eta gauzatutako lanen maila teknikoa egiaztatzeko egokitzat jotzen dituen ausazko ikuskapenak egingo ditu.

Kontratuaren Zuzendaritzak eskatuta, kontratistako teknikariak bertan egongo dira lan garrantzitsuak egiten diren bitartean.

6.5 JASOTZE-PROBAK

Kontratuaren arduradunak obra osoa edo obraren zati sentikorrak edo interesgarriak jasotzeko probak ezarri ahal izango ditu, bai eta lanen kalitatea bermatzeko beharrezkotzat jotzen dituen muntaketarenak ere.

Muntatu eta zerbitzuan jarri ondoren, instalazioa hutsik dagoela egiaztatuko da, eta funtzionamenduan jar daitekeela ziurtatuko da.

Funtzionamendu egokia egiaztatu eta kontratistak eskatutako dokumentazioa entregatu ondoren, behin betiko harrera egingo da, eta ordutik hasiko da, hain zuzen, berme-epea.



6.5.1 HODI-SAIKUNTZA

Hodiek, serpentina-hodiek eta hodi-panelek pasabide libre izan behar dute, korrante-erresistentziak, lurrun-burbuilen buxadurak eta hondakinak uretan (esekiduran) uztea saihesteko. Sekzioa estutzearen garrantzia sustraletako gezi maximoaren eta kurbatuetako diametro-aldaketen bidez probatuko da; aire konprimatuaren bidez, berriz, altzairuzko bola bat sartuko da hodian.

Hornitutako ekonomizataileen hodi eta ukondoen % 100ek gaintitu beharko dute proba hori. Bestela, kontratistak bete beharreko beste batzuekin ordezkatu beharko ditu.

Serpentina-hodietarako taulak eta soldadura zirkularreko josturak dituzten edo ez dituzten hodiak

Ø int (mm)	Rm/da → Ø int			
	0,5 - 1,0	1,0 - 1,5	1,5 - 2,0	> 2
20 - 29	6	5,5	5	4
30 - 39	7	6,5	6	5
40 - 49	8	7,5	7	6

Akordio berezi bat ezarri beharko da hodi txiki eta handien diametroetarako, bai eta prozedura berezi bidez fabrikatutako kurbetarako ere.

Bolaren tamaina tauletatik ateratzen da:

$$\varnothing \text{ bola} = \varnothing \text{ int} - (\text{Rm/da}): 42 - 7,5 = 34,5$$

6.5.2 SAIKUNTZA EZ-SUNTSITZAILEAK

Adjudikaziodunak tailerrean fabrikatutako ekipo guztiak probatuko ditu estankotasuna egiaztatzeko proba hidraulikoaren bidez, eta soldadura guztiak erradiografien bidez egiaztatuko ditu.

Ekipoak instalazioan muntatu ondoren, adjudikaziodunak obran egindako soldadura guztiak erradiografien bidez egiaztatuko ditu ekipoak, sekzioak eta abar muntatzeko/instalatzeko.

Adjudikaziodunak *in situ* egingo du instalazioa bere osotasunean, estankotasuna egiaztatzeko proba hidraulikoaren bidez, eta instalazioa legeztatze beharrezkoak diren probak eta izapideak egingo ditu bere kargura.

6.6 LANEKO ARRISKUEN PREBENTZIOA

Lan horiek egiteko ardura duten langileek Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko Legeria, Araudi eta Erregelamendu guztiak bete beharko dituzte.

Kontratistari dagokio laneko segurtasunaren eta osasunaren arloko prebentzio-jarduerak antolatzea, bai bereak, bai azpikontrata ditzakeen enpresenak.

Kontratistak BBUPko Lan Arriskuen Prebentziorako Sailaren baldintza guztiak bete beharko ditu, ENPRESA KONTRATISTEK EGINDAKO LANETAN LAN ARRISKUEN PREBENTZIORAKO PROZEDURA ESPEZIFIKOAN zehazten den bezala.

Prebentzio-jarduera guztiak BBUPren prebentzio-zerbitzuek baliozkotu behar dituzte.

Betebehar horiek kontratu-izaera izango dute.



6.7 INGURUMENA

Lanak egiteaz arduratuko diren langileek aplikatu beharreko ingurumenari buruzko legedi eta araudi guztia bete beharko dute beti.

Kontratistari dagokio ingurumenaren arloko jarduerak antolatzea, bai bereak, bai azpikontrata ditzakeen enpresenak.

Kontratistak INGURUMENA ERANSKINEAN zehazten diren BBUPko Iraunkortasun, Teknologia eta Berrikuntzako Zuzendariordetzaren baldintza guztiak bete beharko ditu, eta, behar izanez gero, horiek betetzen direla erakusten duten ebidentziak eman.

BBUPko Iraunkortasun, Teknologia eta Berrikuntzako Zuzendariordetzak baliozkotu beharko du ingurumenarekin lotutako jarduera guztia.

Betebehar horiek kontratu-izaera izango dute.

6.7.1 GARBIKETA ETA HONDAKINAK

Kontratistak garbiketa-egoera onargarrian eduki beharko ditu kontratu honen xede diren lanak egiteko sartzen den instalazioak eta esparruak.

Kontratistaren ardura da bere lanak egitean sortzen dituen hondakin guztiak kudeatzea, eta espresuki debekatuta dago BBUPren instalazioetan edozein hondakin ezabatzea edo uztea. Indarrean dagoen eta aplikatu behar den legeriaren arabera kudeatu behar dira hondakinak, eta BBUPren eskura egon behar dute horien kudeaketa egokia egiaztatzen duten dokumentuen ebidentziek.

Aipatutako baldintzaren bat betetzen ez bada, kontratuaren zuzendariak hirugarren bati aginduko dio betebehar horiek betetzeko. Gastu horiek kontratistari deskontatuko zaizkio dagokion ziurtagirian.

6.8 KALITATEA ZIURTATZEA

Lizitatzailak bere erakundeak kontratuaren baldintzak betetzeko gaitasuna duela ziurtatuko du.

Gaitasun hori ISO 9001 2008 edo goragoko beste ziurtagiri baten bidez ziurtatuko da.

Ziurtagiririk ez badu, BBUPk egokitzen jotzen dituen kontrolak onartu behar ditu eskaintzaileak, eta haien kostua bere gain hartu.

Betebehar horiek kontratu-izaera izango dute.

6.9 ZIURTAGIRIAK

Hilero, egindako lanei dagokien eta kontratistak emandako ZERRENDA BALORATUA oinarri hartuta egindako ziurtagiria emango da.

Ziurtagiri partzialak behin-behinekoak baino ez dira izango, eta ez dakarte haien barruan jasotako egindako lanak onartzea.

Amaitu gabeko egindako lanen, partzialki bukatutakoen edo gaizki egindakoen ondorioz, hasierako prezioa proportzioan murriz daiteke.

Kontraesaneko preziorik baldin badago, alderdiek eztabaidatu eta onartu egin beharko dute, gauzatu aurretik.

Kontratuaren Zuzendaritzak aurretik onartu ez dituen lan gehigarriak edo aurreikusitako lanen aldaketak ez dira ordainduko.

7. LIZITATZAILEAK ENTREGATU BEHARREKO AGIRI TEKNIKOAK (B GUTUN-AZALA)



Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoa
Consortio de Aguas Bilbao Bizkaia

Aurkeztu beharreko "Dokumentazio teknikoa" administrazio-baldintzen pleguko dagokion apartatuan zehaztutakoa da.

Bilbon, 2025eko urriaren 29an

Javier Ruiz de la Hera
Saneamendu-Mantenimendu Ataleko Arduraduna